

1. BALIO PROPOSAMENA

Gure produktua, lehen aipatu dugun bezala, dutxa bati jartzeko beso batzuk dira, hainbat pertsonari bizitza erraztuko diotenak. Hauek, oso erabilgarriak izango dira, batez ere, zailtasunak dituzten jendearentzat. Zailtasun hauek mota oro izan daitezke, esate baterako, elbarritua den pertsona bat. Gaur egun beste norbaiten laguntza beharko du dutxatu ahal izateko, produktu honekin bera bakarrik baliatuko da eta pribatasuna irabaziko du. Hau esanda, gure produktuari gero eta osagarri gehiago jarri, gero eta garestiagoa izango da. Hau da, bezeroei eskuez gain, hauei hainbat osagarri jartzeko aukera eskainiko zaie. Adibidez, bozgorailu bat edo zure mugikorra pantaila batera konektatzea...

Beraz, hainbat "pakete" egongo dira:

1.- Basic, bakarrik eskuak edukiko dituena eta taktil pantaila bat eskuak kontrolatu ahal izateko. Prezioa: **670€**. (produktuaren instalazioa bere aldetik kobratuko litzateke)

2.- Complex, pakete honetan Basic-ean eskaintzen dugunaz gain eserleku bat eta osagarri bat aukeratzeko aukera eskainiko genieke gure bezeroei. Osagarri hori, gure zerrenda batetik aukeratu beharko da. Prezioa: **785€**.

3.- Advance, pakete honetan eskuez gain eskaintzen ditugun osagarri guztiak edukiko ditu. Osagarriak, bozgorailu bat, pantaila taktilean mugikorra konektatzea, eserleku bat eta bezeroaren dutxan egin daitezken hobekuntza batzuk.

Prezioa: **2380€**.

Prezioa, gure bezeroaren arabera moldatuko da. Erdi-mailako jendeari zuzenduta dago, beraz, prezio hau dutxa baterako garestia den arren, osagarriak gabeko aukera eskuragarria dela pentsatzen dugu eta beste aukerek hainbat osagarri eskaintzen dituztenez, haien prezioa ulergarria izan daitekeela uste dugu.